

BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Zortzi ikuspegi propio arratsalde kolektibo bat ontzeko prest

📁 BERTSOLARITZA / Maider IANTZI • Iraitz MATEO

Gaur jokatu da Bizkaiko Bertsolari Txapelketa, Bilbon. Gogotsu daude zortzi finalistak, momentua bizi nahi dute gehienek eta oholtza gainean zein azpian ematen diren aldaketak argazkitik haratago ere sumatzea nahiko lukete, oholtza gainean zein azpian.

📷 Argazkiak: Oskar MATXIN | FOKU



naiz:
irratia

ZUZENEAN ENTZUN

Finala zuzenean eta streaming bidez entzun ahal izango da Naiz Irratian, Josune Aramendi eta Eli Pagola bertsolarien iritziekin.

Bilbo, 1984. Hamar aldiz hartu du parte Bizkaiko Txapelketan, lehenengoz 2014an kantatu zuen finalean, bigarren finala du gaurkoa.

Miribillako plaza ez da berria zuretzat. Zer moduzkoa izango da itzulera?

Oso pozik eta gogotsu nago finalerako, txapelketa hasiera pixka bat errezeloz hartu nuen, baina pixkanaka eman

OIHANA BARTRA ARENAS

«Ez nuen pentsatzen hain pozik egongo nintzenik finalean kantatzeko»

diot buelta gorputzaldiari eta orain gogotsu nago. Uste dut nahiko desberdina izango dela, aurreko finaletik jada ia hamar urte dira eta uste dut final honi beste modu batean egingo diodala aurre.

Orain arteko ibilbidean nola sentitu zara?

Laurdenetan asko sufritu nuen, asko-asko, saioan bertan nire buruarekin elkarriketa itsusiak izan nituen. Aldiz, finalaurrekoan pila bat disfrutatu nuen, sekulako giroa egon zen, oholtzan oso talde polita geunden... Oso bestelako sentazioa izan nuen Lemoan, gusturago eta aldarte hobearekin egon nintzen.

Nolakoa izan da prestaketa?

Aurten txapelketa bizi izan dut txapelketatik urrun, ez naiz saio batean ere egon, ez dut jarraitu. Nire burua txapelketaren beldurretik babestu nahian bezala egon naiz, sentitzen nuelako beldur moduko batekin nindoala txapelketara; agian horregatik lehenengo saioko sentazio hori: berriro hemen, eta berriro sufritzen... Nire helburua aurten goan ahalik eta gutxien eragitea zen, eta babesten eta distantzia hartzen aritu naiz horretarako. Beste batzuetan izan dudan aurretiazko sufri-mendu hori gutxitu nahi nuen, eta pixka bat lortu dut:

nahiz eta laurdenetan saioan sufritu nuen, aurreko asteak hobeto eraman ditut distantzia horri esker.

Posible da urruntzea?

Gero eta zailagoa da. Pixkanaka bola handitzen doa eta leku gehiagotan dago presente, jendeak ere galdetzen dizu... Zaila da distantzia hori hartzea.

Lemoako saioan gai sozialak eta Euskal Herrian lekututakoak izan ziren nagusi. Garrantzitsua da?

Niretzat hori da garrantzitsua, gauza askori kantatu ahal diegu, baina niretzat behintzat bertsotan aritzearen funts handienetakoa gure kezkei kantatzea da, eta hausnarketa kolektibo batzuk egitea batzuetan oholtza gainean.

Azken finalaurrekoa zen, nolako plaza izan zen?

Gozada bat izan zen, sartu eta pasilloa egin eta oholtzara igo-tzerakoan sumatzen zen halako giro bat, sekulako animoak, aurpegi ezagun pila bat... Hazea alde nabaritu genuen hasieratik, eta batzuetan zaila izaten da sortzen diren espetatibei erantzutea. Beti ez da horrela izaten, baina nik uste dut bertsotan ere asmatzen joan ginela pixkanaka eta giro horrek ere lagundu zuela saioa hobetzen, denon arteko zerbait izan zen, oso polita.

Finalean argazki berri bat, historikoa, gainera.

Oso pozgarria izan da, lehenengo aldiz emakume gehiago egongo gara oholtzan eta niretzako kantatzeko ere kristoren gozada izango da saioa, zortzikote ederra izango da. Lehenengoz horrelako argazki bat egotea oso inportantea da, eta oso polita aldi berean.

Etxean kantatuko duzu. Zer ematen dio Bilbori finala bertan egiteak?

Niretzat garrantzitsua da Bilbon izatea, beste momentu batzuetan bertso munduan hain presentzia handia ez daukan gunen horretan egiteak ematen dio sinbolismo bat. Horrelako ekitaldi garrantzitsu bat euskaraz eta horrenbeste jende batuko duena Bilbora ekartzea inportantea da.

Zein aldarterekin igo nahiko zenuke oholtzara?

Momentuz daukadan sentimendua poza da, poz handia daukat, ez nuen pentsatzen hain pozik egongo nintzenik hemen kantatzeko. Poz hori hara eramatea eta han sentitzea nahiko nuke. Jendeak esaten didanean txapelketan "disfrutatu", beti esaten diet ezetz, baina oraingoan banao gozatzeraz, eta saio on bat egitera, noski, grina horrekin ere banao. Momentuz poza da dudan sentimendurik handiena.